



Antxinako Fotografixia



Berezaoko eskolia barriro be

Berezaoko auzuan egon zan eskola-umien fotografixia atara geben igazko maiatzari egokixon numeruan. Gerra aurtxukua zan, 1935-1936 ikasturtekua, eskolia barriztau ondorengua. **Lorentzo Arriaranek** itxi oskun argazkixa eta, jakin dogunez, estimaziño haundixa euki eben agertu zanian. Hara, ba, orainguan auzo eta eskola bereko beste erretratu zahar bat: Aita **Fermin Altubek**, Murgialdaiko fraidiak, eskuratu dosku argibide batzuekin batera. Baiña orduko fotografixiaz gaiñera aurtengo Gabonetan ataratako beste bat be emun dosku, sasue haretako ikasletariko batzuk 65 urte beranduago dakarrena, hain zuzen. Onena, baiña, berak zer dixuan irakurtia izango dogu:

“Oraindiok urtia ezta KONTZEJUPETIK aldizkarixak Berezaoko eskolako umien fotografixia ekarri ebela, illaraz-illara neska-mutikuen zerrenda osua, beren izen, jaiotetxe eta guzti. Pozik ikusi geben eta danok gustora. Baiña egixa etzan zerbaite be esaten zan bertan, “1934. urtera arte hamasei bat ikaslerentzako gelia” eukala eskoliak, eta oker hori zuzendu gura geunke. Barrizketia (1934) egin aurretik, 1931-1932 ikasturtian, zenbat ikasle ibilli giñan jakittekko, berbak aparte, orduan ataratako fotografixia ikustia lakorik eztago; ikusi eta kontau: **berrogei**, maixu eta guzti. Gaiñera aittatu bihar da argazkixan, besteren artian, eztagozela Zelaiko Andresa, Mendiko Antonio, Bixente *Korrio*, Billargo M^a Anjeles, Goixenetxeko Maria eta beste bakarren bat akaso. Hona goittik behera eta ezkerretik eskumara guztion izenak eta jatorrixak:

Goixeneko illaran: **Irene Zabaleta**, (*Etxebarriko* monjia), **Doroteo Urrutia** (*Kipuetxe*), **Nati Zabaleta** (*Etxebarri*). **Regina Urrutia** (*Elorrixaga*), **Baxili Txintxurreta** eta ahizpatxua (*Goixenetxe*), **Joxe Mari Aiastui** (*Ertzil*), **Luis Elortza** (*Tantelu* †), **Martzelino Moiu**a (*Tokillo*) eta **Migel Elortza** (*Santa Krutz* errotakua †), gure maixua.

Bigarren illaran: **Gregorio Moiu**a (*Mendi*), **Karlos Bergara** (*Araotz*), **Alfonso Urrutia** (*Kipuetxe*), **Nieves Elortza Ugarte** (*Azkarreta* †), **Felix Umerez** (*Umerezkua*) eta **Iñaxio Elortza** (*Auntzerreka-Portalekua*).

Hirugarren illaran: **Joxe Luis Ugarte** (*Eskolatxo*), **Bernabe Guridi** (*Estenaga* †) eta honen anaia, **Esteban Ugarte** (*Azkarreta*), **Maria Luisa Etxeberria** (*Korrio* †), **Eustakio Olalde** (*Portalekua*), **Maria Anduaga** (*Txatxo*), **Felix Urteaga** (*Jauregi*) eta **Arkauz** anaiak (*Gastiasoro* †).

Azkenengo illaran, lurrian jazarritta: **Maritxu Zabaleta** (*Etxebarri*), **Maritxu Aiastui** (*Ertzil*), **Antonio Urrutia** (*Elorrixaga*), **Antonio Elortza** (*Tantelu* †), **Sabina Etxeberria** (*Korrio*), **Sebastian Etxeberria** (*Korrio*), **Benita Guridi** (*Lezesarri*), **Ines Guridi** (*Zelabarrengo* monjia), **Nati Anduaga** (*Zelaikua*) eta **Joxe Luis Txintxurreta** (*Portalekua* †).



Orain 65 urte Berezaoko eskolan ibillitako mordoskatxo bat juntau giñan fan dan abenduaren 27xan Santa Lutzia ermitan. Meza santuan parte hartu eta ondoren Zelabarren jatetxian bazkaldu. Danera hogetalau lagun izan giñan eta oroigarri legez argazkixa atara be bai. Egun ederra bota geben. Hona egun haretan alkartu giñanak:

Ezkerretik eskumara: Alfonso Urrutia, Alejandro Anduaga, Baxili Txintxurreta, Felix Umerez, Elisa Guridi, Fermin Altube, Nati Anduaga, Ines Guridi, Maria Anduaga, Nieves Elortza, Sabina Etxeberria, Martzelino Moiu, Regina Urrutia, Maria Aiastui, Doroteo Urrutia, Maritxu Zabaleta, Antonio Urrutia, Maria Txintxurreta, Antonio Moiu, Gregorio Moiu, Bernabe Guridi, Karlos Bergara, Iñaxio Elortza eta Felix Urteaga”.

Eskerrik beruenak Aitta Fermineri, eta ia argazki barrikuak zaharrian topaiten dituduzuen!

J. E.

Aspaldiko kontuak

Gure etxe eta lantegietako urzikinak batu eta errekarara bota aurretik depuradora edo araztegiara eramango dituen saneamendu sarea eraikitzen ari garen honetan, saneamendu kontuak direla-eta orain dela ehun urte pasa gure herrian izandako ika-mika baten berri dakargu.

1878ko urriaren 10eko udal-agiri batean irakur daitekenez, Casimiro

Guerrico jaunak, batzorde bat eratu eta bere aldameneko etxean gertatzen ari zenaren aurrean neurriren bat hartzea eskatzen zuen. Nonbait, aldameneko etxeko jabeak Antzuelas errekarara zuzen zuzenean isurtzen zuen komuna jarri zuen, eta, Guerrico jaunaren esanetan, errekek gehienetan ur gutxi zeramanez, kiratsa jasanezina bihurtzen zen inguruko etxeetan.

Francisco Irazabal sindikoak, Adrian Guevara medikuak, eta Hipolito Biain obramaisuak osatu zuten batzordea.

Azken honek idatzitako txostenean hauxe irakur daiteke besteak beste: "...Si

la corriente del río no arrastra las heces ventrales, se depositarán a la intemperie y sus emanaciones alterarán desagradablemente la pureza del aire, y su respiración será nociva. El descenso de los excrementos a la vista de los vecinos, causa también un efecto repugnante que puede convertirse fácilmente en causa de molestias para la digestión..."

Hiru batzordekideen txostenak komunaren aurkakoak izan ziren, eta, beraz, Alkateak hilebeteko epea eman zion jabeari komuna kentzeko.



OÑATI

Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12

OÑATI

